## BERRIKUNTZAKO ETA JAKINTZAREN GIZARTEKO DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoan Gizarte Ekintzaile bat Sustatzeko programa.*

2008ko uztailaren 29an Diputatuen Kontseiluak onartu du ondorengo erabakia:

Gipuzkoak lurralde orekatua nahi du izan, giza dimentsioa eta fisikoa konbinatuko dituena, balioei sendotasuna emango diena eta bere kultura propioa izango duena, baita gainontzeko lurraldeei eta mundu osoari irekita egongo dena ere. Gipuzkoak lurralde argitsua eta lehiakorra izan nahi du, etorkizuneko belaunaldiei zor zaien konpromisoa gordeko duena. Gipuzkoak pertsonen ongizatea, sormena eta garapena bermatuko ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak uste du ez dagoela ongizate iraunkorrik lehiakortasunik gabe, ezta alderantziz ere. Horregatik, premiazkotzat jotzen du gure lurraldeko industria eta produkzio bilbearen lehiakortasuna bultzatzea, dela berrikuntza bultzatuz, ikasketa sustatuz edota ekintzailetasunaren bidez. Aldundiak premiazkotzat jotzen du, halaber, jakintzaren garapena eta, azken batean, proiektu eta politikak egokitu eta bultzatzea enpresen eta lurraldearen premiekin bat etorriz.

Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa gizarte ekintzailea izatea nahi du eta aldaketa horren gidari izatearen aldeko apustua egin du. Aldundiak ekintzailetasunaren aldeko inguruabarrak bultzatu eta kudeatuko ditu, dela hezkuntzaren arloan eta familian, dela komunitatean eta enpresetan. Baina horretarako honako helburuak bete behar dira:

– Gipuzkoako Foru Aldundiak berez, udalen harremanen eta horien garapen endogenorako gaitasunez, unibertsitatearen bidez eta enpresa estamentuen bidez ekintzak eta ekintzailetasunak duten balioaz sentiberatzea eta horiek bultzatzea.

– Gipuzkoako enpresarekin proaktiboki konektatzea eta hitz egitea.

– Enpresa erakundeen barruan pertsonek jakintza sor dezaten, eskuz alda dezaten eta heda dezaten behar diren eremuak sortzea.

– Dagoen enpresa jakintza bereizia transferitu eta zabaltzea.

– Ekintzailetasuna lagundu eta balioztatzea balioaren kate osoan (heziketaren inguruak, familiarenak, gizarte eta komunitatearenak eta enpresarenak) eta sistemako gainontzeko agenteen lankidetzaz, eta bereziki nazioarteko bokazioa duten enpresetan, ibilbide luzekoetan eta oinarri teknologikoa eta berritzailea dutenetan, bultzada berezi bat ematea ekintzailetasunari.

– Emakume ekintzaileak modu bereizian bultzatzea.

Esandakoaren harira, Foru Aldundiak estrategia integral bat asmatu du, honako hiru eremuak bateratzen dituen gizarte ekintzailea eratzeko:

* Ekimenaren zentzua bultzatzea.

* Enpresen sorkuntzari laguntza ematea.

* Enpresen lehiakortasuna handitzea berrikuntzaren eta agente guztien konpromiso pertsonal eta sozialaren bidez.

Ekimen zentzuak funtsezko jarduera arloak lerratzea eskatzen du:

* Biziartean ikasten aritzeko funtsezko gaitasunak. Mundua azkar ari da aldatzen eta barruan lotura asko ditu eta horretara era malguan egokitzeko behar den gaitasun gama

## DEPARTAMENTO DE INNOVACION Y SOCIEDAD DEL CONOCIMIENTO

*Programa para la Promoción de una Sociedad Emprendedora en Gipuzkoa.*

En fecha 29 de julio de 2008 el Consejo de Diputados ha aprobado el siguiente Acuerdo:

Gipuzkoa pretende convertirse en un territorio equilibrado que combina la dimensión humana y física, con una intensidad sólida en valores y una cultura propia, dinámica que está abierta al resto de territorios vascos y al mundo. Un territorio inteligente, competitivo y sostenible y comprometido con las futuras generaciones que garantiza el bienestar, la creatividad y el desarrollo de las personas.

La Diputación Foral de Gipuzkoa entiende que no existe bienestar sostenible sin competitividad y viceversa. Y, por ello, asume la necesidad de impulsar la competitividad del tejido empresarial y productivo de nuestro territorio, a través de la orientación a la innovación, el fomento del aprendizaje y el emprendizaje, y el desarrollo del conocimiento y, en definitiva, la adecuación e impulso de políticas y proyectos de acuerdo con las necesidades de las empresas y del territorio.

Por ello, la Diputación Foral de Gipuzkoa apuesta por liderar la transformación de Gipuzkoa hacia una Sociedad Emprendedora, a través del impulso y la gestión de entornos favorables al emprendizaje, en los ámbitos educativos, familiares, socio-comunitarios y empresariales. Lo que supone, entre otros objetivos:

— Sensibilizar e impulsar el valor de la capacidad de iniciativa y el emprendizaje desde la propia Diputación Foral de Gipuzkoa, las relaciones Municipales y su capacidad de desarrollo endógeno, la Universidad y los diferentes estamentos empresariales.

— Conectar proactivamente y dialogar abiertamente con la empresa guipuzcoana.

— Promover ámbitos favorables para que las personas puedan crear, transferir y extender el conocimiento en las organizaciones empresariales.

— Transferir y extender el conocimiento empresarial diferencial existente.

— Apoyo y valorización del emprendizaje en toda la cadena de valor (entornos educativos-académico, familiar, socio-comunitarios y empresarial), en colaboración con el resto de agentes del sistema, con un impulso adicional del emprendizaje en empresas con vocación internacional, de «largo recorrido» y base tecnológica o innovadora.

— Potenciar, de forma diferenciada, a las mujeres emprendedoras.

En este sentido, se ha diseñado una estrategia integral para la construcción de una sociedad emprendedora, que incardina tres ámbitos:

* La promoción del sentido de la iniciativa.

* El acompañamiento a la creación de empresas.

* El incremento de la competitividad de las empresas, a través de la innovación y el compromiso personal y social de todos los agentes.

El sentido de la iniciativa supone alinear ámbitos de actuación básicos:

* Las competencias básicas para el aprendizaje a lo largo de toda la vida. Adquisición de una amplia gama de competencias para adaptarse de modo flexible a un mundo que está cam-

zabala eskuratu behar da, funtzio hirukoitzaz: Pertsonala, soziala eta ekonomikoa. Hartara, pertsona guztiei aukera emanez pertsona gisa garatzeko, herritar aktiboak lortzeko, gizartea kohesionatzeko eta lan aukerak areagotzeko jakintzaren gizartean.

* Kultura ekintzailearen aldeko testuinguruak garatzea.

* Hezkuntza/prestakuntza sistema kultura ekintzailearen balioak sustatzeko eginkizunean inplikatzea.

* Pertsona ekintzaileen figura onartuko duen gizarte ingurua eratzea.

Ekimen zentzuari eta enpresa espirituari dagokien kontzeptutzat jotzen da pertsonaren abilezia ideiak ekintza bihurtzeko. Hau da, sormenarekin, berrikuntzarekin eta arriskuak onartzearekin zerikusia duena, baita helburu batzuk lortze aldera proiektuak antolatzearekin eta kudeatzearekin ere. Eta, horrek guztiak berarekin bat eraman behar du balio etikoei buruzko kontzientziatzea eta ondo gobernatzea bultzatzea.

Baina horrek guztiak kultura ekintzailea sustatzera bideratutako hezkuntzari dagokionez, bi elementu desberdin baina elkarren osagarri bereiztea eskatzen du. Bata, ikasleria osoarentzat izango den gaitasun eta jarrera ekintzaileko hezkuntzaren kontzeptu zabala; eta bestea, enpresa bat sortzera bideratutako prestakuntzak eskatzen duen berariazko kontzeptua.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuak lehentasuna ematen dio lehen hurbilpenari, hori delako beste jarduera batzuetarako oinarria, honako arloak bateratze aldera:

— Ikasketa planetan era esplizituan sartzea.

— Laguntzarako neurri osagarriak egokitzea: Proiektu pilotuak eskoletan, irakasle taldeak motibatu eta prestatzea, material didaktiko/pedagogikoak.

— Esperientzia onak identifikatu eta behar bezala baloratzea (gizartearen ezagutza eta ikasgai ikasiak).

— Bestelako lurralde eremuekin informazioa eta esperientziak trukatzea.

Ekimen gaitasunak, kontzeptu zabal bat erabiliz, egoerak aztertzea, aukerak planteatu eta ebaluatzea eta egokientzat jotzen dena aukeratzea eta batez ere aurrera eramatea adierazten du, betiere kontuan izanik garatutako ekintzak izan ditzakeen eraginak; kontzeptu horrek, besteak beste, pertsona bat (ekintzailea), ekintza bat (zein ekintza) eta prozesu bat (nola) adierazten ditu.

Hau da, hezkuntzaren arloak hezi egin behar ditu (eta sustatu) ekimena duten pertsonak, pertsona guztiak garelako hein batean eta potentzian ekintzaileak, hots, hausnarketa, sorkuntza eta berrikuntza garatzeko (eta ustiatzeko) izaki gaituak. Pertsona ekintzaileak eremu askotan bada ere: Pertsonala, gizartekoa eta lanekoa. Azken batean, era honetako balioak sustatzea: Sorkuntza, autokonfiantza, ekimena, barneratzea, malgutasuna, talde lana, tolerantzia, aztertze gaitasuna, ahalegina, gaitasun kritikoa, borondate indarra, hausnarketa, lidergoa, konstantzia, errorean tolerantzia, gatazkei aurre egiteko gaitasuna eta erantzukizun soziala.

Eta egintza ekintzailea eta pertsona ekintzaileen balorazio eta hedapenaren eremuan, komunikazioko baliabide eta euskarri guztien konpromisoa bultzatu behar da, pertsona ekintzaileek (balio elkartuak, hartutako konpromisoak, aberastasunaren arloko ekarpenak eta enplegua sortzeko arlokoak) etorkizunean gizartearen ezagutza eta balioztatzea izan dezaten. Hau da gizartearen erreferentzia izan daitezen.

biando con rapidez y que muestra múltiples interconexiones; en una triple función –personal, social y económica-. De modo que todas las personas puedan lograr su plena realización personal, la ciudadanía activa, la cohesión social y la empleabilidad en la sociedad del conocimiento.

* El desarrollo de contextos favorables para la cultura emprendedora.

* La implicación del sistema educativo/formativo en la promoción de los valores de la cultura emprendedora; y

* La existencia de un entorno social que reconozca la figura de las personas emprendedoras.

El concepto de sentido de la iniciativa y espíritu de empresa que se asume es la habilidad de la persona para transformar las ideas en actos. Es decir, aquello relacionado con la creatividad, la innovación y la asunción de riesgos, así como con la habilidad para planificar y gestionar proyectos con el fin de alcanzar objetivos. Y, todo ello, debe incluir una concienciación sobre los valores éticos y promover la buena gobernanza.

Lo que en el ámbito educativo supone distinguir dos elementos diferentes, pero complementarios entre sí, sobre la educación dirigida a fomentar la cultura emprendedora. Por un lado, ese concepto amplio de educación en actitudes y capacidades emprendedoras para el conjunto del alumnado; y por otro lado, ese concepto, más específico, de formación dirigida a la creación de una empresa.

En el caso del Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa se prioriza la primera aproximación como base a otras actuaciones intentando integrar ámbitos tales como:

— La inclusión de forma explícita en los planes de estudios.

— La articulación de medidas complementarias de acompañamiento: Proyectos piloto en las escuelas, motivación y formación de los equipos docentes, materiales didácticos/pedagógicos).

— Identificación y puesta en valor (reconocimiento social y lecciones aprendidas) de buenas experiencias.

— Intercambio de información y experiencias con otros ámbitos territoriales.

Una competencia, de iniciativa, que supone, en una concepción amplia, analizar situaciones, plantear alternativas, evaluarlas, optar por la que se considera más idónea y, fundamentalmente, llevarla a cabo teniendo en cuenta los posibles impactos de la acción desarrollada; significa, entre otras cosas, conjugar una persona (quién emprende), una acción (qué emprende) y un proceso (el cómo).

Es decir, el ámbito educativo debe educar (y promover) personas con iniciativa, en la medida en que todas las personas somos emprendedoras en potencia, es decir, seres capaces de desarrollar (y explotar) la reflexión, la creatividad y la innovación. Personas emprendedoras en diferentes ámbitos: Personal, social y profesional. En definitiva, fomentar valores tales como: Creatividad, autoconfianza, iniciativa, inclusividad, flexibilidad, trabajo en equipo, tolerancia, capacidad de análisis, esfuerzo, capacidad crítica, fuerza de voluntad, reflexión, liderazgo, constancia, tolerancia al error, capacidad de afrontar conflictos y responsabilidad social.

Y en el ámbito de la valorización y la difusión social del hecho de emprender y las personas emprendedoras, debe promoverse el compromiso de todos los medios y soportes de comunicación para que el devenir de las personas emprendedoras (valores asociados, compromisos adquiridos, aportaciones en términos de riqueza y de creación de empleo) puedan tener un reconocimiento y valorización social. Es decir, puedan ser un referente social.

Enpresen sorkuntzari laguntza integrala emateko prozesuak hiru elementu kontuan izan behar dituen pertsonalizatzea eskatzen du: Bat, enpresa proiektua duen pertsonaren profila; bi, enpresa ideia sortu den eremua (pertsonala, enpresakoa, zientzia eta teknologiaren sarea); eta hiru, garatu nahi den enpresa mota.

Horiek horrela, honakoak izango dira garatu beharreko ildo nagusiak:

* Autoenplegu eta mikroenpresetarako proiektuak;

* Teknologian eta/edo berrikuntzan oinarritutako enpresa berriak;

* Barruko ekintzailetasuna;

* Hazkuntza azkarreko enpresak eta nazioartean ari direnak;

* Nazioarteko mugikortasuneko ekimenen bidez, gazte ekintzaileak gaitzea gako konpetentzietan eta beharrezko jakintza zehatzetan, betiere enpresa sortu aurretik.

* Emakumeek sustatutako enpresa proiektuak.

Edonola ere, enpresak laguntzeko azpiegitura sarearekin (berariaz homologatutako erakunde eta enpresak, enpresa eta berrikuntza zentroak, parke teknologikoak) zerbitzu integrala zehaztuko da, eta horrek besteak beste zera eskainiko du:

— Laguntza eta aholkularitza.

— Bideragarritasun eta negozio plan bat garatzea.

— Enpresa sortzeko prozesu administratiboa sinplifikatzea.

— Sortutako enpresa berriari laguntza eta babesa ematea lehen urtean.

— Enpresa proiektuaren ezaugarri eta premietara egokitutako finantzaketarako bideak eratzea.

Eta behar bada, laguntzeko neurriak, pertsona ekintzaileek aukera izan dezaten negozioen funtsezko alderdiak identifikatzeko eta beren helburuetarako gaitasuna eskuratzeko.

Enpresen lehiakortasuna areagotzea, berrikuntzaren eta agente guztien konpromiso pertsonal eta sozialaren bidez. Eta, gehiago zehaztuz, pertsona ekintzaren erdi-erdian jartzen duten kudeatzeko eta antolatzeko forma berriak gehituz.

Horri begira, Gipuzkoa jakintzaren gizartea bihurtzea, pertsonen garapen integralean oinarrituz, non pertsona eta erakundeen arteko eraginaz merkatuak berrikuntza gisa onartuko duen.

Horri begira, aldeko inguruneak garatu nahi dira, eta horien bidez pertsonak, pertsonen ekipoak eta erakundeak lerrokatuko dira gizarte eta lurralde eremuetan, jarduera helburu eta kulturen inguruan, eta horiek aldi berean berrikuntza eta konpromisoaren (pertsonala, profesionala eta soziala) inguruan oinarrituko dira.

Azken batean, Gipuzkoako enpresek balio handiagoa sor dezaten sustatu nahi da, honako eremuetan antolatutako jardueren bidez:

* Erakundeetan dauden elementu ukiezinak (jarrerak, balioak, arauak) sustatzea, eta horien bidez erakunde horietako pertsonen artean koordinazioa eta kooperazioa erraztea.

El desarrollo de un proceso de acompañamiento integral a la creación de empresas exige una personalización que tenga en cuenta tres elementos: Uno, el perfil de la persona con un proyecto empresarial; dos, el ámbito de nacimiento de la idea empresarial (personal, empresarial, red ciencia y tecnología); y, tres, el tipo de empresa a desarrollar.

En este sentido, las principales líneas de actuación a desarrollar, son:

* Proyectos de autoempleo y microempresas;

* Nuevas empresas de base tecnológica y/o innovadora;

* Intraemprendizaje;

* Empresas de rápido crecimiento y presencia global (internacional);

* Capacitación, a través de iniciativas de movilidad internacional, de jóvenes personas emprendedoras en competencias clave y en conocimientos específicos necesarios y previos a la creación de su propia empresa.

* Proyectos empresariales promovidos por mujeres.

En todos los casos, con el compromiso de la red de infraestructuras de apoyo a las empresas (entidades y empresas homologadas al efecto, centros de empresas e innovación, parques tecnológicos) se determinará un servicio integral que suponga, entre otros elementos:

— Orientación y asesoramiento.

— Desarrollo de un plan de viabilidad o de negocio.

— Simplificación en el proceso administrativo de creación de una empresa.

— Acompañamiento y tutorización en el primer año de la nueva empresa creada.

— Vía de acceso a la financiación adecuadas a las características y necesidades del proyecto empresarial.

Y en su caso, medidas de acompañamiento que permitan a las personas emprendedoras identificar los aspectos clave de los negocios y construir competencias para alcanzar sus objetivos.

El incremento de la competitividad de las empresas, a través de la innovación y el compromiso personal y social de todos los agentes. Y, más concretamente a través de la incorporación de nuevas formas de gestión y organización que sitúan a la persona en su centro.

En este sentido, hacer de Gipuzkoa una sociedad del conocimiento basándose en el desarrollo integral de las personas en la que las interacciones personales y organizacionales se convertirán en innovaciones reconocidas como tales por el mercado.

Para ello, se pretenden desarrollar entornos favorables que alineen personas, equipos de personas y organizaciones, en ámbitos sociales y territoriales concretos, en torno a unos objetivos y unas culturas de actuación, que deberán pivotar sobre la innovación y el compromiso (personal, profesional y social).

En definitiva, se pretende promover la creación de mayor valor por parte de las empresas guipuzcoanas, con actuaciones en los ámbitos de:

* La promoción de elementos intangibles existentes en las organizaciones (actitudes, valores, normas) que faciliten la coordinación y la cooperación entre las personas que las configuran.

* Konpromiso legal eta etikoa enpresetako erabakiak hartzeko operazio eta prozesuetan, enpresa horiek osatzen dituzten pertsona guztien, familiakoen eta oro har gizartearen interes eta itxaropenak kontuan izateko.

* Formulak egokitzea, enpresako jarduerak jarraipena izan dezan eta belaunaldiaren erreleboa ziurtatu ahal izateko.

* Enpresetako langileak, gizonezkoak zein emakumezkoak, parte har dezaten sustatzea.

* Lurralde eta gizarteko berrikuntza.

Zergatik eta zertarako garrantzitsuak dira, baina horiek nola ahalbidetu jakin behar da. Hau da, gobernatze ekintzan kokatutako jarduera printzipioekin jokatu behar da. Eta zehazki honakoekin:

— Partaidetza. Lurralde, gizarte eta ekonomiako agente guztien parte-hartzea bultzatuz prozesuaren fase desberdinetan, hasi prozesuak asmatzen direnetik eta politiken aplikaziora arte.

— Berrikuntza –helburuetan, jardueren diseinuan, eta egin beharreko lanaren metodologietan– eta esperimentazioa, jarduerak asmatu eta garatzeko fundamentu gisa; hots, ikasketa iturriak.

— Instituzioak zabaltzea eta koordinatzea, EAEko politika eta ekimen desberdinak elkar osatzeko aukera izateko moduan.

— Lankidetza, batez ere arlo pribatuaren eta publikoaren artean, jarduerak garatzeko eginkizunean konpromiso maila handiagoak eskuratzearren, eta gizartean eragin handiagoa izatearren planteatutako helburuei dagokienez.

— Gomendio eta jarraibide komunitarioekin lerrokatzea.

— Proportzionaltasuna, subsidiariotasuna eta irisgarritasuna, betiere tokiko eta/edo eskualdeko esperientzia pilotuetan oinarriturik eta kontuan izanik horixe dela ikasteko eta kontrajartzeko bidea, eta jarduera politika berriak definitu eta garatzeko, baita helburu bera duten erakunde desberdinen konpromisoa eta parte-hartzea areagotzeko ere.

— Kudeatzeko erreminta berriak gehitzea, betiere herritarren pertsonalizatzea (KITak) eta erantzukizuna (protagonismoa eta konpromisoa) sustatzen dutenak.

— Gizon eta emakumeen artean berdintasun eragingarria.

— Ebaluazioa, erabakiak hartzerakoan laguntzen duelako, baliabideak erabiltzea hobetzen duelako eta erantzukizun soziala eta kontuak eman beharra indartzen dituelako.

Horrenbestez, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak eta bere erregelamenduak (apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutakoa), ezarritako marko berriarekin bat etorriz, premiazkoa da «Gipuzkoan gizarte ekintzailea sustatzeko programa»ko diru laguntzen banaketa arautzea, horretarako behar diren arauak onartuz eta 2008ko ekitaldiko laguntzak banatzeko deialdia eginez.

Ondorioz, Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko foru diputatuak proposatuta eta aldez aurretik aztertu ondoren, Diputatuen Kontseiluak atariko datan egindako bilkuran, zera

ERABAKI DU

*Lehenik.* «Gipuzkoan gizarte ekintzailea sustatzeko programa»ko diru laguntzak banatzeko oinarri arautzaileak onartzea eta horiek akordio honetara gehitzea I. eranskin gisa.

* El compromiso legal y ético para incorporar en las operaciones y procesos de toma de decisión de las empresas, los intereses y expectativas de todas las personas que las constituyen, sus familias, la comunidad local y la sociedad en general.

* La articulación de fórmulas que aseguren la continuidad de la actividad empresarial y el relevo generacional.

* Promoción de la participación de las trabajadoras y los trabajadores en las empresas.

* Innovación territorial y social

El porqué y el para qué son importantes, pero deben hacerse posibles con el cómo. Es decir, con unos principios de actuación incardinados con la gobernanza. En concreto:

— La participación, desarrollando una amplia participación de los diferentes agentes territoriales, sociales y económicos en las distintas fases del proceso, desde la concepción hasta la aplicación de las políticas.

— La innovación –en los objetivos, en el diseño de las acciones, y en las metodologías de trabajo a desarrollar– y la experimentación, como fundamentos para la concepción y desarrollo de las actuaciones; es decir, fuentes de aprendizaje.

— La apertura y la coordinación interinstitucional de tal forma que permita la complementariedad de las diferentes políticas e iniciativas en la CAPV.

— La colaboración, fundamentalmente con el ámbito privado y público, a fin de procurar mayores grados de compromiso en el desarrollo de las acciones y unos mayores impactos en la sociedad en referencia a los objetivos planteados.

— La alineación con las recomendaciones y directrices comunitarias.

— La proporcionalidad, la subsidiariedad y la accesibilidad basadas en las experiencias piloto de ámbito local y/o comarcal como vía de aprendizaje y contraste para la definición y desarrollo de nuevas políticas de actuación y de ampliar el compromiso y la participación de las diferentes entidades que comparten un mismo objetivo.

— La integración de herramientas de gestión que promuevan la personalización (TIC´s) y la corresponsabilización (protagonismo y compromiso) de las personas.

— La igualdad efectiva entre mujeres y hombres.

— La evaluación como principal vía que permite mejorar en la toma de decisiones, optimizar la utilización de los recursos y reforzar la responsabilidad social y la rendición de cuentas.

Por todo lo expuesto, se hace preciso regular la concesión de subvenciones del «Programa para la promoción de una Sociedad Emprendedora en Gipuzkoa» de acuerdo con el nuevo marco normativo que establece la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril) mediante la aprobación de sus bases reguladoras así como de la convocatoria para el presente ejercicio 2008.

En consecuencia, a propuesta del Diputado Foral de Innovación y Sociedad del Conocimiento y previa deliberación, el Consejo de Diputados en sesión del día de la fecha

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras de la concesión de las subvenciones del «Programa para la promoción de una Sociedad Emprendedora en Gipuzkoa», cuyo texto se adjunta como Anexo I al presente Acuerdo.

*Bigarren.* «Gipuzkoan gizarte ekintzailea sustatzeko programa»ko 2008ko ekitaldirako diru laguntzak banatzeko deialdia onartzea eta hori akta honetako II. eranskinera gehitzea.

*Hirugarren.* 2008ko deialdirako gastua, bost milioi, bederatziehun eta hogeitazortzi eta zortziehun eta berrogeita bi eurokoa (5.928.842 euro), onartzea eta hori ondoko partida hauetara egoztea:

— 1 1110.120.470.00.01.2008: 2.000.000 €.

— 1 1110.120.470.00.07.2008: 250.000 €.

— 1 1110.120.470.00.08.2008: 100.000 €.

— 1 1110.120.470.00.09.2008: 200.000 €.

— 1 1110.120.470.00.10.2008: 225.000 €.

— 1 1110.120.470.00.11.2008: 135.000 €.

— 1 1110.120.470.00.12.2008: 170.000 €.

— 1 1110.120.470.00.13.2008: 98.842 €.

— 1 1110.120.481.00.01.2008: 375.000 €.

— 1 1110.120.770.00.06.2008: 150.000 €.

— 1 1110.120.770.00.07.2008: 350.000 €.

— 1 1110.120.770.00.10.2008: 175.000 €.

— 1 1110.120.770.00.12.2008: 700.000 €.

— 5 1110.120.770.00.12.2009: 250.000 €.

— 1 1110.120.770.00.13.2008: 200.000 €.

— 1 1110.120.770.00.14.2008: 250.000 €.

— 1 1110.120.770.00.15.2008: 100.000 €.

— 1 1110.120.770.00.16.2008: 100.000 €.

— 1 1110.120.781.00.01.2008: 100.000 €.

*Laugarren.* Ahalmena ematea Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuko foru diputatuari erabaki honetan aurreikusitako diru laguntzak emateko procedura ebazteko eta erabaki hau garatu, interpretatu eta zuzen ezartzeko beharrezkoak diren egintzak emateko.

*Bosgarren.* Akordio honen bidez onartutako oinarri arautzaileak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren hurrengo egunetik sartuko dira indarrean.

Akordio hau behin betikoa da eta amaia ematen dio administrazio bideari. Interesa duenak administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango du Donostiako Auzitegi Kontentzioso-Administratiboan, akordioa argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Alabaina, pertsona partikularrek aldez aurretik, berraztertzeko hautazko helegitea jar dezakete diputatuen kontseiluan, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Bide hori aukeratuko balitz, ezingo da administrazioarekiko auzi helegiterik jarri harik eta berraztertzeko jarri dena berariaz ebatsi arte edo gaitzetsi arte. Nolanahi ere, horrek guztiak ez du galarazten egokitzat jo daitekeen beste edonolako helegitea jartzeko aukera.

Donostia, 2008ko uztailaren 29a.—Iñigo Oliveros Bruneton, idazkari teknikoa. (8914)

*Segundo.* Aprobar la convocatoria de las ayudas del «Programa para la promoción de una Sociedad Emprendedora en Gipuzkoa» correspondiente al ejercicio 2008 que se adjunta al presente acuerdo como Anexo II.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de cinco millones novecientos veintiocho mil ochocientos cuarenta y dos euros (5.928.842 euros) para hacer frente a la convocatoria del ejercicio 2008 con cargo a las siguientes partidas:

— 1 1110.120.470.00.01.2008: 2.000.000 €.

— 1 1110.120.470.00.07.2008: 250.000 €.

— 1 1110.120.470.00.08.2008: 100.000 €.

— 1 1110.120.470.00.09.2008: 200.000 €.

— 1 1110.120.470.00.10.2008: 225.000 €.

— 1 1110.120.470.00.11.2008: 135.000 €.

— 1 1110.120.470.00.12.2008: 170.000 €.

— 1 1110.120.470.00.13.2008: 98.842 €.

— 1 1110.120.481.00.01.2008: 375.000 €.

— 1 1110.120.770.00.06.2008: 150.000 €.

— 1 1110.120.770.00.07.2008: 350.000 €.

— 1 1110.120.770.00.10.2008: 175.000 €.

— 1 1110.120.770.00.12.2008: 700.000 €.

— 5 1110.120.770.00.12.2009: 250.000 €.

— 1 1110.120.770.00.13.2008: 200.000 €.

— 1 1110.120.770.00.14.2008: 250.000 €.

— 1 1110.120.770.00.15.2008: 100.000 €.

— 1 1110.120.770.00.16.2008: 100.000 €.

— 1 1110.120.781.00.01.2008: 100.000 €.

*Cuarto.* Facultar al Diputado Foral del Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento para la resolución del procedimiento de concesión de las subvenciones previstas en el presente Acuerdo y para dictar cuantos actos sean necesarios para el desarrollo, interpretación y ejecución mismo.

*Quinto.* Las bases reguladoras aprobadas por el presente Acuerdo producirán efectos desde el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este Acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposicion ante el Consejo de Diputados, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Donostia-San Sebastián, a 29 de julio de 2008.—El secretario técnico, Iñigo Oliveros Bruneton. (8914)

I. ERANSKINA

*«Gipuzkoan Gizarte Ekintzailea Sustatzeko programa»ren oinarri arautzaileak.*

*1. oinarria. Diru laguntzaren xedea.*

Oinarri hauen xedea da «Gipuzkoan gizarte ekintzailea sustatzeko programa»ko diru laguntzen banaketa arautzea.

*2. oinarria. Jarduera eremua.*

Oinarri hauek arautzen dituzten diru laguntzak, erakunde onuradunak eta diru laguntzaren xedeko jarduerak zehazteari dagokionez, honako hiru jarduketa arloetan banatuko dira:

a) Hezkuntzaren arloan ekintzaren zentzua bultzatzea.

b) Enpresa proiektua garatzeko prozesuan laguntza ematea.

c) Enpresen lehiakortasuna sustatzeko kudeaketan berrikuntza bultzatzea eta enpresa proiektuarekin konprometitzea.

*3. oinarria. Hezkuntzaren arloan ekimenaren zentzua bultzatzearen eremuko erakunde onuradunek bete behar dituzten eskakizunak.*

Hezkuntzaren arloko erakunde onuradunak izango dira ondoko erakundeak, baldin eta martxoaren 27ko 3/2007ko Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan xedatzen dituen debekuetan ez badaude sartuta:

a) Haur hezkuntza, lehen mailako hezkuntza, derrigorrezko bigarren mailako hezkuntza eta derrigorrezkoaren ondoko bigarren mailako (batxilergoa eta erdi eta goi mailetako zikloak) zentroak, Gipuzkoan daudenak eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren funts publikoen bidez finantzatuak.

b) Aurreko paragrafoan aipatu diren erakundeen interesak ordezkatzen dituzten elkarteak eta/edo heziketa entitate eta/edo eskola komunitateen elkarteak.

c) Gipuzkoan dauden enpresa berrikuntzarako Europako zentroak.

*4. oinarria. Hezkuntzaren arloan ekimenaren zentzua bultzatzearen eremuko diru laguntzen xedeko jarduerak.*

Diru laguntza jasoko duten jarduerak dira heziketa ekintzak, berrikuntza proiektuak eta honako ustezkoetan sailka daitezkeen esperientzia pilotuak:

a) Ekimenaren zentzua eta enpresa espiritua (ekimenaren zentzuaren eta enpresa espirituaren arloko gaitasun gakoak garatzea).

b) Hezkuntza komunitatean ekimenaren zentzua eta enpresa espiritua bultzatuko dituzten esperientziak.

c) Berrikuntza pedagogikoa, hezkuntza sistema ekimenaren zentzua eta enpresa espiritua garatu eta sustatzeko eredu bihurtzeko. Berrikuntza pedagogiko horretan, halaber, atal berezia eskainiko zaio irakaskuntza/ikaskuntza dinamika eta prozesu berrien diseinuan IKTren paperari.

*5. oinarria. Hezkuntzaren arloan ekimenaren zentzua bultzatzearen eremuko proiektuak aukeratzeko irizpideak.*

5.1. Honako irizpideen arabera aukeratuko dira eskaerak eta diru laguntzen zenbatekoak zehaztuko:

ANEXO I

*Bases reguladoras del «Programa para la Promoción de una Sociedad Emprendedora en Gipuzkoa».*

*Base 1.ª Objeto de la subvención.*

Las presentes bases tienen por objeto regular la concesión de subvenciones del «Programa para la promoción de una Sociedad Emprendedora en Gipuzkoa».

*Base 2.ª Ámbitos de actuación.*

Las subvenciones objeto de regulación por las presente bases, a efectos de determinar las entidades beneficiarias y las actuaciones objeto de subvención, comprenden tres ámbitos de actuación:

a) Promoción del sentido de la iniciativa en el ámbito educativo.

b) Acompañamiento en el proceso de desarrollo del proyecto de empresa.

c) Impulso de la innovación y el compromiso con el proyecto de empresa en la gestión para la promoción de la competitividad de las empresas.

*Base 3.ª Requisitos de las entidades beneficiarias del ámbito de promoción del sentido de la iniciativa en el ámbito educativo.*

Siempre que no se vean afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, tendrán la consideración de entidades beneficiarias:

a) Centros de educación infantil, educación primaria, educación secundaria obligatoria y secundaria post-obligatoria (bachillerato y ciclos formativos medios y superiores) radicados en Gipuzkoa y financiados con fondos públicos del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.

b) Asociaciones y/o Agrupaciones de entidades formativas y/o comunidades escolares que representen los intereses de las entidades citadas en el párrafo anterior.

c) Centros Europeos de Innovación Empresarial en Gipuzkoa.

*Base 4.ª Actuaciones objeto de subvención del ámbito de promoción del sentido de la iniciativa en el ámbito educativo.*

Las actuaciones subvencionables consistirán en acciones de promoción, proyectos de innovación, así como en experiencias piloto que se encuadren dentro de los supuestos siguientes:

a) Sentido de la iniciativa y espíritu empresarial (desarrollo de las competencias clave en el ámbito del sentido de la iniciativa y espíritu empresarial).

b) Experiencias que promuevan la promoción del sentido de la iniciativa y espíritu empresarial en la comunidad educativa.

c) Innovación pedagógica para que el sistema educativo se convierta en centro de referencia para el desarrollo y promoción del sentido de la iniciativa y espíritu empresarial y con un apartado específico al papel de las TIC´s en el diseño de nuevas dinámicas y procesos de enseñanza/aprendizaje.

*Base 5.ª Criterios de selección entre los proyectos del ámbito de promoción del sentido de la iniciativa en el ámbito educativo.*

5.1. La selección entre las solicitudes y la cuantificación de las ayudas se efectuará de conformidad con los siguientes criterios de valoración:

* Aurkeztutako proiektuaren egokitasuna zentroko plan batekin edo, egoki bada, hezkuntza sarearekin (helburuak, lehentasunak, jarduerak), hezkuntzaren arloko ekimenaren zentzua bultzatzeko: 30 puntura arte.

* Proposamenaren kalitatea (onartutako estrategiaren argitasuna eta izaera berritzailea; eta zuzen dimentsionatua izatea eta proposatutako helburuen eta garatu beharreko baliabideen metodologiaren artean koherentzia gordetzea): 20 puntura arte.

* Xedeko pertsona kopurua: 30 puntura arte.

* Gipuzkoan jakintzaren gizartea bultzatzeko estrategian eta programetan jarduera berritzaileen (ikasitako irakasgaiak) eragin potentziala: 10 puntura arte.

* Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna: 10 puntura arte.

* Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuarekin euskaraz hitz egiteko ardura izango duen taldea sortzea: 5 puntura arte.

* Jakintzaren gizartea sustatzeko eginkizunean Europako politikekin eta interes komunitario orokor eta bereziekin egokitzea: 5 puntura arte.

5.2. Aurreko paragrafoetako irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango diru laguntzarako.

*6. oinarria. Enpresa proiektua garatzeko prozesuan laguntza ematearen arloko erakunde onuradunek bete behar dituzten eskakizunak.*

6.1. Erakunde onuradunak izango dira ondoko erakundeak, baldin eta martxoaren 27ko 3/2007ko Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan xedatzen dituen debeku bakar batean ere ez badaude sartuta:

a) Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko foru diputatuaren maiatzaren 26ko 437/2004 Foru Aginduko 2. artikuluaren bidez homologatutako erakundeak, foru agindu horrek arautzen baititu pertsona ekintzaileei aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuak homologatzeko oinarriak (2004ko ekainaren 2ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 103 zk.).

b) Gipuzkoan dauden elkarteak, betiere enpresen interesak ordezkatzen badituzte.

6.2. Aurreko apartatuko erakunde eta elkarteei dagokienez, ondasun erkidegoak eta nortasun juridikorik ez duten ondare oinarriko erakunde guztiak onartuko dira, baldin eta administrazio komun egonkorra badute eta diruz laguntzen den proiektua edo jarduera burutzeko modua badute. Pertsona onuradun izateko baldintza ez dute parte hartzen duten pertsona guztiek bete behar, ez baitira onuraduntzat joko. Hala ere, horiek partaidetza kuotaren araberako ardura izango dute inoiz itzultzetarik aginduz gero edo diru zigorrik jarriz gero.

*7. oinarria. Enpresa proiektua garatzeko prozesuan laguntza ematearen arloko diru laguntzen xedekoak izango diren jarduerak.*

Honako programak izango dira diru laguntzen xedeko jarduerak:

a) Enpresa proiektuen laguntza eta babes integralerako programa —TXEKIN— (bere baitan hartzen ditu Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko foru diputatuak maiatzaren 26an emandako 437/2004 Foru Aginduko 1.2.a) eta 1.2 f) artikuluetan aurreikusitako zerbitzu guztiak).

* El encaje del proyecto presentado con un Plan de Centro o, en su caso, red formativa (objetivos, prioridades, acciones) para promover la incorporación del sentido de la iniciativa en el ámbito educativo: Hasta 30 puntos.

* Calidad de la propuesta (claridad y carácter innovador de la estrategia adoptada y correcto dimensionamiento y coherencia entre los objetivos propuestos y metodología de instrumentos a desarrollar): Hasta 20 puntos.

* El número de personas destinatarias: Hasta 30 puntos.

* Impacto potencial de las acciones innovadoras (lecciones aprendidas) en la estrategia y en los programas de promoción de la Sociedad del Conocimiento en Gipuzkoa: Hasta 10 puntos.

* Igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres: Hasta 10 puntos.

* La creación de un equipo de interlocución con el Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento en euskera: Hasta 5 puntos.

* Incardinación con las políticas europeas y ámbitos de interés comunitario generales y específicos en la promoción de la Sociedad del Conocimiento: Hasta 5 puntos.

5.2. Los proyectos que en aplicación de los criterios del apartado obtengan menos de 50 puntos no darán derecho a subvención.

*Base 6.ª Requisitos de las entidades beneficiarias del ámbito de acompañamiento en el proceso de desarrollo del proyecto de empresa.*

6.1. Siempre que no se vean afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, tendrán la consideración de entidades beneficiarias:

a) Las entidades homologadas a través del artículo 2 de la Orden Foral n.º 437/2004, de 26 de mayo, del Diputado Foral de Innovación y Sociedad del Conocimiento que regula las bases para la homologación de servicios para la prestación de asesoramiento y asistencia técnica a las personas emprendedoras (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 103 de 2 de junio de 2004).

b) Asociaciones radicadas en Gipuzkoa que representen los intereses de las empresas.

6.2. Respecto a las entidades y asociaciones referidas en el apartado anterior, se admitirán comunidades de bienes o cualquier tipo de entidad de base patrimonial carente de personalidad jurídica que deberá contar con una administración común estable y poder llevar a cabo el proyecto o actividad subvencionable. Los requisitos para acceder a la condición de persona beneficiaria no serán exigibles de cada persona partícipe, que no tendrán la consideración de beneficiarias, sin perjuicio de las responsabilidades que en función de sus cuotas de participación puedan alcanzarles en caso de reintegro o de sanción pecuniaria.

*Base 7.ª Actuaciones objeto de subvención del ámbito de acompañamiento en el proceso de desarrollo del proyecto de empresa.*

Las actuaciones subvencionables consistirán en los siguientes programas:

a) Programa integral de acompañamiento y tutoría de proyectos empresariales –TXEKIN– (incorpora los servicios previstos en los artículos 1.2 a) y 1.2 f) de la Orden Foral n.º 437/2004, de 26 de mayo, del Diputado Foral de Innovación y Sociedad del Conocimiento).

b) Oinarri teknologikoko eta/edo berritzaileko enpresa proiektuen laguntzarako programa –Txekintek– (baitan hartzen ditu maiatzaren 26ko 437/2004 Foru Aginduko 1.2. artikuluan aurreikusitako zerbitzu guztiak).

c) Barne ekintzailetasunerako proiektuak.

d) «Hazkunde handiko potentzial»ekotzat jotzen diren enpresa proiektuak heldu eta garatzeko prozesuan laguntzea eta tutoretza espezializatua ematea. «Hazkunde handiko potentzial»ekotzat joko dira ondoko irizpideren bat edo batzuetan oinarritzen diren proiektuak:

— Berrikuntza maila.

— Enplegua sortzeko itxaropenak.

— Fakturazio mailaren itxaropenak.

— Talde sustatzailearen kualifikazioa.

e) Emakume ekintzaileak sustatzeko ekimenak.

*8. oinarria. Enpresa proiektua garatzeko prozesuan laguntza ematearen arloko proiektuen artean aukeratzeko irizpideak.*

